BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 01

B MAILA

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1916.

Deskribapena

Etxadiaren bizitegi zatian ale bakarreko esku hartzea denez, eraikuntzak nolabaiteko monumentu izaera hartzen du. Hiriaren bilbean aldaera erakusten duelako ere nabarmentzen da. Izan ere, angelua osatuz plaza txiki bat aurkituko dugu banketxearen sarreraren parean eraikinaren fatxadari esanahia emanez. Gaur egungo urbanizazioa Elizaldek 1950ean egindako proiektuari dagokio. Bi obrak –etxebizitzen eraikina eta banketxea– Ramon Cortazar arkitektoarenak dira baina estilo diferentean egin ziren. Azken urteetan Banco Guipuzcoanon eraberritze lan orokorrak egin dituzte. Lan horien ondorioz, kanpoaldeko antzinako erlaitzean kobrezko estaldura ikus daiteke. Etxebizitzen proiektua 1916koa da eta 1921ean amaitu zituzten eraikitzen, Urcolak eta Eceizak proiektatutako antzinako Hotel du Palais-en zati bat okupatuz. Harrizko fatxadak eta hormigoizko egitura ditu. Behe oina eta bost goi oin ditu, hiru kantoiko etxeen artean eta bi mehelinen artean, guztira bost. Eskailera nukleo bakoitzeko etxebizitza bat edo bi ditu. Etxebizitzek sakonera eta azalera handia dute tarteko patio txikien laguntzaz. Etxadia bertako fatxadetan apaingarri txiki ugari daudelako nabarmentzen da, eragin frantsesa duen eklektizismo baten barruan, barra-barra apainduak baina kalitatezko materialekin. Eraikinaren goialdean apaindurako hainbat elementu aurki daitezke. Horien artean zeramikako estaldurak nabarmentzen dira. Zenbait merkataritza etxabe euren neurriengatik eta bertan ikus daitezkeen akabera aberatsengatik nabarmentzen dira. Atariak konfigurazio zaindua eta eraikuntza kalitate handia ditu.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeriak.
- B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak, apaingarri kareberrituak, goialdean zeramikazko estaldurak eta merkataritza etxabeen harrizko estaldurak.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
  - * Jasodurak ez dira onartzen.
  - * Jatorrizko dorreak, kupulak eta mantsardak kontserbatuko dira.
  - * Ataria jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
  - * Getaria 2, 2 bikoiztu eta 2 hirukoiztuarekin, eta San Martzial 26rekin esku hartze unitate bat osatzen du, Plan Berezi honen Ordenantza Orokorren 17. artikuluan ezarritako irismenarekin eta baldintzekin.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, aurreko aurreikuspenen aplikazioaren emaitzazkoen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.